

S 18667077
/ 22030141

DONATIVO
DOHAIN



Gotzon Aurrekoetxea lagunarterik hara

Aitor Iglesias, Ariane Ensunza
(arg.)

BIBLIOTECA CAMPUS DE ALAVA KOLDO MITXELENA	
KOLDO MITXELENA ARABAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA	
Nº B 18667077	Fecha/Data 23/06/17
Nº I 22030141	Dpto./Saila
Signatura 809.169-087 GOT	


 Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

 
 2740865

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Gotzon Aurrekoetxea lagunarterik hara / Aitor Iglesias, Ariane Ensunza (arg.). – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2017. 336 p. ; il., gráf., map. ; 24 cm.

Textos en euskara, inglés, francés y español.

D.L.: BI-542-2017. – ISBN: 978-84-9082-582-2

1. Euskara (Lengua) – Dialectología. 2. Lenguaje y lenguas – Variación. I. Iglesias, Aitor, coed. II. Ensunza, Ariane, coed. III. Aurrekoetxea, Gotzon, homenajeado.

809.169-087

UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak lagundutako liburua

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9082-582-2

Lege gordailua: BI-542-2017

Aurkibidea

Taula gratulatoria	9
Hitzaurrea	11
JOHN NERBONNE, Respecting local variation	13
ESTEVE CLUA, AITOR IGLESIAS, IKER USOBIOGA eta MIQUEL SALICRÚ, Nola identifikatu ezaugarri esanguratsuenak bariazio dialektalean: DiaTech nabarmentzeko aukera	25
ARIANE ENSUNZA, Busturialdeko euskararen hizkuntza-aldakortasunaz: (i_V) aldagaia denboran eta espazioan	35
JEAN LÉO LÉONARD, Modéliser les diasystèmes et les aires dialectales : exploration de huit <i>mondes géolinguistiques</i>	57
XARLES VIDEGAIN, ‘Epouvantail’/‘Espantapájaros’ euskaraz: motibazioak bateratuz	87
AINTZANE ETXEBARRIA, ALBA SANZ, URTZA GARAY eta ASIER ROMERO, Unibertsitateko ikasle elebidunen prosodia gaitasuna Txanogorritxu ipuinaren kontaktetan: muga-tonuak	111
GURUTZE EZKURDIA, BEGOÑA BILBAO eta KARMELE PEREZ, Bizkaierazko agakiak: 1896-1970	123
IÑAKI GAMINDE eta NAIA EGUSKIZA, Arratiako gazteen aditz laguntzaileen bariazioaz	141
JUAN MANUEL HERNÁNDEZ-CAMPOY, From Traditional Dialectology and geolects to Social Dialectology and sociolects	155
JOSÉ IGNACIO HUALDE, Erronkarieraren garapen fonologiko dialektalaz ..	175
ORREAGA IBARRA MURILLO, Nafarroako hizkerak etnotestuen bidez azterturik	195
AITOR IGLESIAS eta LOREA UNAMUNO, Hizkuntza-bariazioa Dimako hizkeran	223

JOSE LUIS ORMAETXEA LASAGA <i>TXIPI</i> , Aramaioko hiztegia osatzen	235
MARIA-PILAR PEREA, Raíces etimológicas vascas en el <i>Diccionari català-valencià-balear</i>	255
URTZI REGUERO UGARTE, Ohar batzuk goi-nafarrera arkaiko eta zaharreko lexikoaz	277
JESUS RUBIO, Hizkuntza bere osotasunean	291
PATXI SALABERRI MUÑOIA, <i>Gero</i> : hermetikak eta hermeneutikak	307
XULIO SOUSA, Documenting and mapping geolinguistic variation: the linguistic database of the <i>Atlas Lingüístico Galego</i>	321

Tabula Gratulatoria

Ernestina Carrilho (Universidade de Lisboa)

Irati de Pablo (UPV/EHU)

Kepa Diéguez (UPV/EHU)

Iñaki Esparza (Arratia BHI)

Nuria Esteve-Gibert (Universitat Pompeu Fabra)

Elisa Fernández Rey (Universidade de Santiago de Compostela)

Pilar García Mouton (Centro de Ciencias Humanas y Sociales / CSIC)

Hans Goebel (Universität Salzburg)

Jon Irigoras (Eusko Jaurlaritza - Hezkuntza Saila)

Angel Larrea (Arratia BHI)

Jesus Mari Makazaga (UPV/EHU)

Isabel Molina (Universidad de Alcalá)

Juan Rekalde (Arratia BHI)

Gero: hermetikak eta hermeneutikak

Patxi Salaberri Muñoa

patxi.salaberri@ehu.eus

EHU/UPV

*Berpizteko modurik hoberena
deabru batek bezala sormenezko zerbaitetan lan egitea da.
Inor ez da zahartzen sortu egin dezakeen bitartean.*

R. Chandler

Abstract

Incarnate devil in a talking snake, the central plains of Asia in his garden, in shaping-time the circle stung awake, in shapes of sin forked out the bearded apple; and God walked there who was a fiddling warden, and played down pardon from the heavens'hill. We in our Eden knew the secret guardian in sacred waters that no frost could harden, and in the mighty mornings of the earth; Hell in a horn of sulphur and the cloven myth, all heaven in a midnight of the sun, a serpent fiddled in the shaping-time.

Key words: XVII, Axular, Gero.

1. Ba omen da gizajendeon bizitzan lar zehaztu gabeko une bat, gogoaren urdintzearekin uztartua etorri ohi dena, non handik harat diskurtso jostalari-ien itsasoan urtu nahi izaten baita ordura arte jorratutako lur larri-idor oro, eta non lehenagoko seriotasunaren zurrinak tokia utzi nahi izaten baitio egote laxoari, eta begiratze eta mintzatze lasaiaren gozatzeari.

Une horren atarian idatzi dira honako lerrook, nonbait. Horrek dakartzan abantaila eta eragozpen guztiekin, noski, besteak beste, unibertso akademikoan sorraraz ditzakeen zulo beltzen inpresio eta mesfidantza astronomikoenekin.

Jarraian ikusiko den bezala, larritasunaren esparrutik abiatutako lerroak dira hauek. Batzuk zientzi parametroen zuhurtasunetik ehuntzen hasiak, beste hainbat literaturak berezko duen askatasunetik sortuak eta nonahiko askatasunetara bideratuak, galderaz beteak ez gutxi...; halaz ere, lerro orok dute,

nahas-mahas eskainiak badira ere, xede nabarmena ikusmiran, guzti-guztiek hurbilarazi nahi baitute euskal irakurlea berez lehor eta urruneko egiten den aspaldiko idazlan zoragarri —uler bedi azken hitz hau bere esanahirik aberatsenean— baterantz. Axularrek 1643an argitara eman zuen *Gero* izeneko hartarantz, hain zuzen.

Zantzu enpiriko bezainbeste ukitu aske duen lana, beraz, honako hau.

Edonola ere, formalki oharpen multzotxo bat baino ez da bertan aurkituko dena. Zinezko egiak, balizko galderak eta orotako aieruak batera emango dituzten oharkizunak baino ez, hortaz, ondokoak, Axularren eta haren liburua-
ren ustezko alderdi ezkutua erakutsi litzaketenak.

Eta guztiak, diogun berriro ere, irakurlea gure liburu klasikoetarantz eta, bereziki, Axularren *Gero* libururantz erakartzeko asmoarekin idatziak.

2. Misterioen urraketa erronkari hasiera serioa emateko, has gintezke liburua-
ren izenburuari buruzko lehen kezka agertzen, txantxaren parekoa batzuen ustez, baina printzipioz egokia izan litekeena proposatu nahi genukeen ibilbideari tonua jartzeko.

Egungo grafian ez bezala, *GUERO* dugu, horrela idatzita, 1643an argitaratu zen zorioneko liburua-
ren benetako izenburua, izenburu estilizatu eta mezu-laburtzailea hain zuzen, bigarren edizioak, harrigarriro —nahiz hobe ustez, ziu-
rrenik—, zeharo lardaskatu zuena.

Irri-mirrika hasi beharrik gabe ere, zinez galde liteke ea nola irakurri zen hainbat irakurlearen artean izenburu ospetsua bera. Agidanez, ia oharkabean bi osagai agerikotan bereizirik begietara daiteke liburua eskuetara bezain azkar, denborazko aditzondoaren deskonposizioak honako irakurketa ere eskaintzen baitu: GU ERO.

Rh-dunen euskalkietako batek baino gehiagok ere egin ohi duen irakurketa horretatik sortzen den baieztapena, erantsi beharrik ez da, liburua-
ren mamia-
rekin guztiz bat letorke, Eliza katolikoarentzat —eta, ondorioz, Axularrentzat ere— mundu honetan zororik izatekoan, gu geu baino ez baikara, bekatariok, jaiotzez orbandun garenok, geure jokamoldeak aldatzen ez ditugunok, etengabe-
biko gerotik gerora gabiltzan kristauok.

Izatez, maiz hartzen da *Geron* zehar bekataria *erhotzat*, gehienetan, egia da, pasarte biblikoetatik jasotakoetan oinarrituta.

Honatx horietakoren bat:

Stulte, hac nocte repent animam tuam a te, quae autem parasti cuius erunt? (Lc. 12). A erhoa, zentzu gabea, zer mintzo haiz? zer go-goeta darabilak? Egin dik hireak, gaur eskatuko zaizkik heure arimaren, gaur gorputzetik atherarik eramanean deraue. Eta gero orduan, bildurik dadutzen on horiek nozentzat izanen dira? (76 or.)

Salomonek dioen bezala, *Stultorum infinitus est numerus*. Erhoen kontua infinitu da, infinituki anhitz kondentzen da (142 or.)

Hala da bada erhoa, kofesoragana, arimako midikuagana, joan nahi gabez, urthe guztian, hain denbora luzean, garizumaraino, arimako eritasunarekin dagoena ere (545 or.)

Eta izenburua-
ren bigarren irakurketa hori berrestera letorke liburua-
ren amaiera aldera hurbiltzean urdazubiarrak biltzen duen esaldia ere:

A, mundu zoroa! Gristino itsu, adimendu gabea! (605 or.)

Jakina, Axularren gogoan irakurketa-aukera bikoitza eskaintzeko asmo zuzenik izan ez balitz ere (hau da, *si non è vero...*), ez da zalantzarik —barka bedi ezezko baieztapenaren biribila— guztiz bat zetorrela idazpurua liburua-
ren hedatu nahi zuen mezuaren muinarekin eta, orobat, hemen ilunpetik ateratzen hasi berri garen isilkakoekin...

3. Behin lainopeko ataletan barneratzeari ekinik, ezinbestekoa da, jarraian, *Gero*ren lehen orrialdean (azal gisakoan) bertan "*Eccles. 5*" erreferentziarekin jasotzen den aipamenaren inguruko kezka ere mahaigaineratzea, izatez, bai liburua-
ren ehunduraren harira eta mamira iristeko eta bai atal eta kapitulu-
en labirintoan lasaiago ibiltzeko iparrorratz aproposena bezala hauta baitaiteke bere baitan orri-kutxa horretako urrea biltzen duen ikur nagusi hori.

Begi-bistakoa da aholku-emaile huts, neutro, liburua-
ren hasiera biguna eta lasaia emateko moduko pasarte geza dirudiela Axularrek horretan dakarrenak:

Ne tardes converti ad Deum, et ne differas de die in diem.

Bada pentsatzen duenik urdazubiarrak keinu modukoa egin nahi izan ziola Hiponako Agustini behialako putaner konbertsoak sermoi mamitsu batean¹ garatu zuena berean ere jaso nahi izan balu bezala jokatzeko. Alabaina, omenaldiak eta enpatiak gorabehera², ezinbestekoa da aipua jasotzean isildurik gelditu ziren pasarte arras esanguratsuez berehala gogoratzea.

¹ Honela dio 40. sermoiaren izenburuak: "De eodem loco Ecclesiastici: *Ne tardes converti ad Deum neque differas de die in diem*".

² Eszeptikoentzako oharra: honako hau "kointzidentzia" hutsa balitz ere, aintzat hartzekoa da *Geron* barrera Hiponakoa dela autorerik aipatuena, lauogei bider baino gehiagotan agertzen baitira haren erreferentziak (maiztasunen sailkapenean ondoren datorren Krisostomok 56 aipu ditu "soilik"). Erantsi beharrik ez da erreferentzia-narotasun horrek, Axularrek gehien landutako testuen adierazlea izateaz gainera, hemen arakatuko ez den beste puntu —oraindik ilun— bat argitzeko ere balio lezakeela ziurrenik, hots, ea xvi. mendearen amaieran espainiar monarkiak bulkatu premontratar ordenaren berrantolaketa ez ote zuen Axular norbertarra agustindarren ordenarantz bideratu eta, era berean, Salamankan ikasteko hautua egitera eramanean (ikus Salaberri 1999a eta 1999b).

Izan ere, Axularrek luzatutako gomendio —ustez— buztintsu horrek *Ecclesiasticus* liburuan³ aurretik eta atzetik erantsita daramatza balizko biguntasuna eta xamurtasuna ezabatzen dituzten benetako gaztiguak.

Are gehiago: Axularrenean aholku besterik ez dirudien aipuari benetako esanahia ematen dioten pasarte horiek beste zerbait gehiago ere islatzen dute, Jainkoaren benetako izaera, alegia, agian urdazubiarraren idazle-zuhurtziak hasieratik agerian utzi nahi izan ez zuena.

Miserikordiazkoa izatetik urrutixko, mendekuzko eta mehatxuzko izaera jainkotiar izugarria baita pasarteok islatzen dutena. Aita ulerkor eta maitagarriaren orde, amorrus beteriko borrero zigortzailea.

Hortik, ziurrenik, beranduago agertuko zuen izu larriaren iragarpentzat ulertu behar izatea Axularrek hasieratik libururatu ez zituen bertset “laguntzaile” haien isiltzea.

Honela diote *Ben Siraken* liburuaren bosgarren kapituluan, *Vulgata*ren latinezko hitzetan, 7-9 bertsetok:

7 Misericordia enim et ira ab illo cito proximant et in peccatores respicit ira illius.

8 Ne tardes converti ad Deum, et ne differas de die in diem.

9 Subito enim veniet ira illius, et in tempore vindictae disperdet te.

Eta honelaxe dio Duvoisinek *Vulgata*tik euskaratutako bertsoiak:

7 Alabainan urrikalmendua eta hasarrea laster hurbiltzen dira harrengatik, eta bekhatoreen gainera begira dago haren hasarrea.

8 Ez berant Jaunaren gana bihurtzera, eta ez luza egunetik egunera;

9 Ezen terrepentean jautsiko zaitzu haren hasarrea, eta galduko zaitu asperkundeko egunean.

Nahiz eta liburuaren barnean jaso zituen gero *Gerok* 5:7 delakoa (109. orrialdean) eta 5:8-9 bertsetei zegozkien pasarteak (76. orrialdean), agerikoa da, testu-ingurukorik gabe, zortzigarren bertseta baino ez zuela ezarri nahi izan Axularrek azalean. Azalean eta, liburu biribiltzeko eta zeharo ixteko, baita amaieran bertan ere (620 or.)⁴. Eta betiere, aholku gisara, dramatismo gabe, hiru bertsetetatik isurtzen zen beldur-izua sortzeko asmorik ez balu legez.

Dramatismoa eta izua baliatzeko, geroago ikusiko den bezala, ongi aurreikusiak eta gordeak zituen Axularrek beste une eta gune batzuk.

³ Beste izen batez ere ezaguna, hau da, *Ben Siraken Jakinduria* (ikus *Elizen Arteko Biblia*, Lazkao, 1994).

⁴ Aldaketa txiki batekin: aipamenaren hasierako *Ne* partikularen orde, *Non* delakoa jarritz.

4. Aipatu idazpuru horretan fokalizatzen du, bada, *Gero* liburuak irakatsi eta hedatu nahi duen mezua: “*Ne tardes converti ad Deum, et ne differas de die in diem*”.

Nola garatzen den mezua, nola argudiatzen dion Axularrek bekatoriari, ordea, irakurleak berak ikusiko du liburu irakurtzen has dadinean, hona ekarri gaituzten asmoetarako eta muga gisara jarria dugun lerro-kopururako luzeegi joko bailuke hori guztia orriotan azaltzen aritzeak.

Aurreratu bezala, gehiago interesatzen zaigu hemen liburuaren bukaera aldeko jolasa, Jainkoak —eta haren orde, hark lur honetan dituen ministroek— bekataria hertsatzeko prestatuak dituen beldur-izuen egitura eta agertokia erakutsiko dizkiguna.

Galdera pertinentea litzateke, beraz, ea nolako amaiera ematen zaion *Gero* liburuari.

“Ez da gaitz ihardesten” esango zukeen urdazubiarrak alboan izan bagenu.

Eta halaxe da: argi samarra du erantzuna.

Baldin onbideratzea geroko uzteak ekartzen omen dituen kalte terrenalen ataletan egindako argudiatze luzeak ez bazuen efekturik egiten bekatoriaren gogoan, Axularrek ongi bilduak zituen liburu-amaierarako bost kapitulu zinez garrantzizko, bekatoriaren portaera aldarazteko hondar-hondarreko errekurtsio arras eraginkor ziruditenak eta, “azken orenean” behintzat, egiazki aintzat hartzekoak zirenak.

Hain zuzen ere, liburu-azaleko latinezko aholkuaren ustezko biguntasuna jadanik bazterturik, hasieran inplizituki —edo isil-gordeka, nahiago bada— iragarritako mehatxu dibinoa guztiz esplizitu eginez bukatzen da idazlana, hau da, benetako mezua ezin argiago utziz eta, batez ere, beldur-izuen konbentzimendu-indarraz baliatuz. Esan nahi baita izutzeko teknikak pedagogikoki eta sibilinoki baliatuz, izan ere, liburuak aldarrikatzen zuen konbertsioaren aldeko gomendioari jaramonik egin ezean, “beste munduan” erdietsiko omen zen egoera latzaren deskribapenak —infernuarenak, alegia— antz gehiegi izan baitzezakeen orduko liburu-hartzaile eta irakurleek hiru hamarkada lehenago ezagutu zituzten egoera bortitzekin, “sorgin”-en aurkako jazarpenean erabilitako tortura eta hilketa-moduekin, hain preseski.

Infernuarena da, beraz, bekatoriok ulertu beharko genukeen lehen kontzeptua, *erho-zorook* buru gainean dugun mehatxu nagusia, konbertitzen ez denari eternitate guztirako luzatuko zaion tortura ezagunen gune pribilegiatua, bizimodu onera bideratzeko benetako akuilua eta eredia.

Axularrek ongi asko zekien, ezer lortzekotan, infernuko beldur haren bidez, mundu honetan ikusia eta ezaguna zutenaren beldur areagotu haren bidez baizik ez zuela lapurtarren portaera aldaraziko.

Baina liburuaren amaiera izanik, Axularrek azken ustekabe bat utzi zion ezkutatuta irakurlearen gogamenari, geuk ere lantxo honen amaierarako gorde beharra duguna.

5. Nolanahi ere, aurreratua dugu dagoeneko garrantzitsuena, hots, hasierako aipamena dela bide, eta agerikoa ez den arren, liburu guztia mehatxuzko zutarri nagusi horren inguruan bilbatua dagoela. Beldur-izu inplizituaren inguruan, azken finean.

Hurrengo galdera, bada, honako honen esparrukoa izan liteke: liburuak eskuetan, hurbil al liteke irakurlea beste modu batez, aipatu aipuan adierazi bai, baina zehazten ez den izu larri horren irudikapenerantz?

Oroitarazi beharrik ez da: *Gero* liburuak baditu irakurketa gaitzikorrik behar luketen hainbat konstante, hala edo hola, bestelako interpretaziotara hurbilaraz gintzaketenak. Konstante numerikoak, besteren artean.

Egia da aierutzat hartu beharko direla hemen proposatzen diren zenbaki-irakurketak, baina, liburuak ez duen izaera ludikoa medio, merezi bide du saiakera laburren bat egitea Axularren irriño-motak ezagutzera iristeko.

Gainera, hipotesiak egiazko gertatuz gero, osoki bihurtzat hartu beharko litzateke urdazubiarrak liburuan barrena burututako jolasa.

Nonbaitetik hasi behar, eta egiturazko osagai nagusien "irakurketa"-tik has gintezke lehendabizi, hots, liburuaren orrialde-kopuruari erreparatetik.

Lehen begiratuan besterik ematen badu ere, berehala ohartuko gara idazlanaren *corpusa* —hau da, "liburu" ez dena (baimenak eta hitzaurre gisako gutunak) kenduta— 21. orrialdean hasi eta 621. orrialdean bukatzen dela. 600 orrialdeko kopuru biribila da, ondorioz, —ez bat gehiago, ez bat gutxiago— obrak hartzen duen luzera⁵. Esan bezala, lehen begiradan eta kanpotik atzematen den luzera da hori, alegia, ez baita guztiz berdina atzematen dena eta egiazki duen orrialde-kopurua.

Izan ere, kopuru itxi hori lortzeko "ukitu"-ren bat egin behar izan zuen edizioaren apailatzaileak, denon gogoan dagoen bezala, errepikaturik daude-eta 439. eta 440. orrialdeak ("439bis" eta "440bis" bikotea tartekatuz).

Guztiarekin ere, liburuaren moldaketa orokorra aztertuta, zalantza da ez ote zuen Axularrek irakurlea 600 orrialde huts ikustera bulkatzea xede.

6. Ezohiko irakurketan sartuta gaudela, orain arte bazterturik izan dugun kapitulu-kopuruari begira geniezaioke ondoren.

Eskaintza-gutuna, hitzaurre gisakoa eta onesprenak kenduta, esan bezala, horiek ez baitute, izatez, liburuaren mamia osatzen, *Gero* liburuak 60 kapitulu-tan banatzen da.

⁵ Amarruak bilatzen hastekotan, irudiz areagoturik agertzen den luzera (amaierako 15 lerroko orrialde erdia), lehenengo orrialdean (21 zenbakia daraman hartan, alegia) izenburuarekin irentsita geratu zen beste orrialde erdia (beste 15 lerroi zegokion tartea, hain preseski) orekatzeko asmoagatik izan zela pentsa liteke.

Ohar bekio zenbakiaren jolasaren esangurari, *corpusaren* orrialde-kopuruaren (600) hamarrena baita eta, gainera, matematikoki eta baita sistema numerologikoen arabera ere⁶, zenbaki osoa, perfektua, liluragarria.

Axularrek ongixko ezagutzen bide zuen esparru horietan nabarmenak dira 60 zenbakira iristeko bideak (10×6 ; 12×5 ; 15×4 ; 20×3 ; 30×2 ; 60×1), izan ere, haren desglose matematikoan, gainontzekoetan ez bezala, lehen sei zenbakiak (1, 2, 3, 4, 5 eta 6) baititu zatitzaile.

Kapitulu-kopuruaz gainera, beste zerbait gehiago ere erantsi liteke "60" zenbakiaren erabileraz.

Geroko orrialdeen konposaketa-formatura jo behar da horretarako: liburuaren orrialde bakoitza moldatzeko formula —harrigarriki?— aipatu zenbaki berberaren inguruan garatzen da, orri bakoitza, aurki-iferentzuak barne hartuta, 60 lerroz osatuta baitago. Edo beste modu ikusgarriago batez esanda (barka madarikazio sinestesikoak!), salbuespenak salbuespen, 30 lerroko testua aurkituko du irakurleak orrialdeko.

Galderak, bada, erruz: autorearen nahia? editorearen ohitura? estetika hutsa?...

Zeinahi ere izan zen ustezko arrazoia edo artifizea, handiegia lirudike irizpide-kointzidentziak berriz ere kasualitate hutsari egozteko.

7. Horrelako esparru irristakorretarantz erroiztu gabe ere, ezin ahantz daiteke bestelako irakurketarik ere aurki lekiokela azken erreferentzia numeriko perfektu horri. Edonola ere, egiaztatzeke dago ea, besteak beste, Axularrek erantsi nahi izango uste ziokeen esangura sinbolikoaren aurki lekioketen.

Ezaguna da faktore kronologikoa funtsezko osagai duela urdazubiarraren mezuak eta, hori dela medio, etengabe ari zaigula, izenburutik bertatik hasita, denboraren garrantzia azpimarratzen. Eta hain da garrantzizkoa, ezen osagai kronologiko horrek berak erakusten baitu, azken buruan, bekatariaren jarrera Jaungoikoarekiko eta konbertsioarekiko.

Horretan ez da mendebaleko tradizio kristautik aldentzen, egia da, baina liburuari emandako taxutze propioa dela eta, oso dira ugari adibideak hagit presazkoa den eginkizun horretaz ohartarazteko: onbideratzea *orain* egin behar da, *ez gero*; "hemen" hain *denbora laburrean* egiten den bekatuak *betirako* zigorra du "beste aldean", *eternala*, etab.

Erantsi behar da, orobat, horien guztien erabilera instrumentalak ez duela inolaz ere galarazten —alderantziz baizik— Axularrek kronologiaren sinbolismoaren indarraz oharturik⁷, denbora-unitate berezi baten inguruan garatzen

⁶ Honako honetan bederen, orobatsu da kabalak, isopsefiak, gematriak edota numerologiak diotena.

⁷ Ideiaren originaltasuna eta beste literatur tradizioetan izandako erabilera gorabehera, argi da ez zitzaiola Axularri arrotz egiten *oren* hitzak debozio kristauan izandako prebalentzia. Ordu liturgikoak xedatzen zituzten *horarium* edo *oren-liburu* izenekoak tarteko.

duen hari diskurtsiboa. Eta garatu ere, ez edonon eta ez edonola garatzen du, testuinguru larrietasan eta esanguratsuenetan baizik; eta ez ezinbestean autoritatezko testuen isurtze-tanta gisara, eta bai, berriz, bere etorriak arretaz ehunduak.

Esan beharrik ez da *oren* hitza dela gakoa edo, nahiago bada, denbora-unitate hori.

Aipamen argigarri anitz bil daiteke liburuan zehar (gurea da adibideotako letra etzana):

Eztakizu, erran komuna den bezala, eztela heriotzea bezain gauza segurik, eta *orena* noiz izanen den bezain guti gerthurik? (55 or.).

Eztugu *oren* baten segurantzarik (64 or.).

Oren batean garenean, bigarreanean bagina desiratzen dugula (160 or.).

Jainkoa baithan ezta ez *oren*ik, eta ez aldarte gaitzik, munduko jendetan ohi den bezala (460 or.).

Bekhatu bat egiten duzunean, albaliz *oren* berean behar zenduke kofesatu (544 or.).

Eta berdin infernuan daudenez diharduela:

Ehun milla, milla urtheren buruan, hain urrun egonen dira pagatzetik nola lehenbiziko sarthu ziren egunean, eta *orenean* (603 or.).

Nola irakurleari azken aholkua ematean:

A mundu zoroa, giristino itsu, adimendu gabea: hemengo pena aphur batez, *oren* batetako minaz, eta oinhazeaz, hanbat kasu, eta kontu egiten duzuna, egizu halaber zerbait kontu, eta gogoeta fin gabeko mende hartaz ere; orhoit zaitenzi sekula, sekula gabeko, sekula hartaz: esperantza gabeko, bethiere hartaz: eta orhoiturik, utzkitzu (605 or.).

Orena, beraz, gako nagusietako bat, sinbolikoki zein —ideia adierazteko modu grafikoa baino ez da hau— bisualki.

Nolanahi ere den, *oren* delakoa ez doa beti bakarrik, beste bi hitz hauek ere ohi ditu bidaide liburuan barrena: *heriotza* eta *azken*, betiere biok erdi sinonimotzat edo, gutxienez, esparru semantiko berekotzat hartzen dituelarik. Hortik, gero, hitz-kate moduan ere agertu izana: “beraz, hunelatan *heriotzeko puntuan* ere, *azken orenean* ere” (199 or.; gurea da letra etzana). *Oren* hori baita beste munduan pairatuko edota gozatuko omen dugun etorkizunerantz bideratuko gaituen unea —une hutsa— izendatzeko hitza.

Inoizka, dena den, egoeraren larritasuna gehiago areagotze aldera, bi hitzokin batera azalduko da *oren* erabakigarria: “heriotzeko azken orenean” (195 or.), “heriotzearen azken oreneko” (202 or.).

Baina aurreratu bezala, *oren* hitzak badarama aldi berean Axularrenean beste esanahi kronologiko-sinboliko bat ere bere baitan, hau da, hirurogei (60) minutu laburrez —ezin une laburragoz, herri-mentalitatearen arabera— osatutako denbora-unitatearena⁸.

Eta horretxera iritsi nahi genuen: ordubetea osatzen duten minutu horiek bere ematen diote liburuari sinbolismo berria, 60 kapitulu haietako bakoitza “azken oreneko” azken un(itat)e aprobetxagarria balitz bezala agertzen baita etengabe.

Liburua *orena* bezalako unitate gisara irudikatua legoke. Kapitulu bakoitza, berriz, “azken oren” ospetsuan salbatu ahal izateko hausnartu eta praktikatu beharko genukeen guztiaren hirurogeirena.

8. Kezka eta zalantza da ea harantzago iritsi gintezkeen, horrenbeste bihur-gune dela bide, zenbakien laguntzarekin. Ez al zuen Axularrek, esaterako, ezer grafikoagorik erakutsi nahi izango bere liburuan? Nola uzta liteke hori guztia gorago mahaigaineratu dugun *Izuaren* gakoarekin? Ez al da haren irudia pertsonifika lezakeen zerbaiten aztarnarik? Ez al zuen jokatu nahi izango zenbakiakin, orrialde-kopuru (600) eta kapituluekin (60) zerbait esanguratsuago agertuz?

Edonork dakien moduan, bada erlijio kristauaren fundazio-liburuetan zenbaki bat, *Gaizkiaren* ikur gisara hartutako zenbakiaren oinarri izateagatik biziki berezi egin dena eta bere garrantzia egunotara arte luzarazi duena.

Apokalipsi 13:18 pasartean aurkitzen da ikur horren oinarria eta ondoko mendeetan egindako eratorpen guztien benetako aitzakia. Hona Duvoisinin *vulgata*ko bertsioa⁹:

Huntan da jakin-beharra. Duenak adimendu, berez beza zenbaterata heltzen den basaberearen zenbatekoa. Ezik gizon baten hanbatekoa da; eta haren hanbatekoa, sei ehun eta hirur hogoi eta sei.

Letrak zenbaki erromatarretan jarrita, “666” delakoa, alegia¹⁰. Gaizkiaren, Piztiaren zein Antikristoaren zenbakia.

Gurera etorritik, bidezko galdera litzateke, bada, ea sinbolo numeriko horren funtsezko osagaia den “6” zenbakia bederen Axularren liburuan era esanguratsuan azaltzen den edota beste zerbaiten giltza izan daitekeen.

⁸ Agerikoa da, denbora-unitate hori dela eta, Axularrek —oharkabean izan bazen ere— euskaldunon sistema bigesimalaren adierazlea den adibidea (“hirurogei”-ko unitatea, hain zuzen) sumertar eta babiloniarren sistema duodezimalarekin eta sexagesimalarekin uztarturik.

⁹ Elizen Arteko Elkartearen bertsio modernoari ere hel liezaiokoe irakurleak: “Hemen jakinduria behar da: buruargi denak asma dezala piztiaren zenbakiaren esanahia, gizon baten zenbakia baita. Zenbakia seihun eta hirurogeita seia da”.

¹⁰ Ez da hemen aintzakotzat hartuko beranduagoko kritikak antzeko baliokotzat hartua duen “616” zenbakia.

Behartua badirudi ere, egia da ez ginatekeela behialako “algebra sakratuak” zegien ohiko identifikaziotik urruti izango izenburuko hitzaren aurreneko letra —*Gero* delakoaren *G* hizkia— sei (6) zenbakiarekin parekatuko bagenu, hau da, $G = 6$.

Horrela ulertuz gero, liburuan agertzen den lehen hizkiak berak markatua genuke obra guztiaren tonua. Eta zerbait gehiago, beharbada¹¹.

Sinestezinak diren fikziotan sartuta gaudela irudi lekiok irakurle erru-kiorrari, baina Axularren liburuaren zil nagusia den laugarren *Azkenkira*¹², edo, nahiago bada, gizaki ororen gainean dagoen mehatxu nagusiaren gako den hitzaren baranora hurbildu beharko litzateke irakurlea segidan, badaezpada.

Hark ere —*IFERNU* delakoaz ari gara— 6 zenbakia du ardatz, horixe baitu hitzak hizki-kopurua bederen.

Orain arte agertutako zenbaki nagusi hauekin, bada, Piztiaren zenbakiaren atarian kokatuta geundeke: 6 zenbakia han-hemen, 60 kapitulu, 600 orrialde...

Aitortzekoa da, bai: manipulazio gehiegizko itxura luke jolas hermeneutiko honek baldin, egiantzekotasuna areagotzeko, pisu gehiagoko arrazoirik eskainiko ez balitz ahalik lasterren.

Honatx, bada, azkena eta, agian, indartsuena.

Irakurleak ezagun du zein den *IFERNU* hitzaren hebreerazko ordaina: *GEHENNA* hitza.

Horixe da, bai, egiazko erlijioaren batean sinesten dutenak izutzeko erabili ohi den kontzeptu beldurgarriaren hebreerazko izendapena, Leizarragak *TB*-ren amaieran, hebreera eta grezierazko hitzen zerrendatxoan “miseriazko harana”-ren esanahiarekin azaldu zuena.

Geron zehar hiru aldiz izan zen ageriki testuratua, hiztun bikain bezain santu omen zen Krisostomo izeneko baten latinezko aipu parean hirurak, eta hirurak 56. kapitulu¹³, infernuko penen kontsideratzea planteatzen duen hartan (gogoan har bedi kapitulu hau, hartan bertan hasten baita, geroago ikusiko den bezala, atal garrantzizkoa).

Baina inor gutxi ohartu bada ere, beste era ezkutuago batean ere azaltzen da *Gehenna* hitza urdazubiarraren liburuan. Aurkitua eta deskubritua izateko azalpen zehatzagoa behar duen laugarren batean, hain zuzen.

¹¹ Ezer berezirik bilatu nahi izan arren, baztertu egin beharko litzateke, noski, mehatxuzko mezu jainkotiarren transmititzale denarengana ere joatea, nahiz eta ezaguna izan urdazubiarraren deitura ere sei hizkiz osatutako hitza dela: AXULAR.

¹² Gainerako *azkenkiak* (heriotza, azken judizioa eta paradisu gloria) lausoago edota urtuago tratatzen diren bitartean, laugarrenari kapitulu eta orrialde-kopuru handi samarra eskaintzen dio Axularrek liburuaren amaieran, berehala ikusiko den bezala.

¹³ Behin 573. orrialdean eta birritan 577. orrialdean.

9. Oro har, hitzen mailegatze formala dela eta, gauza jakina da ez duela euskarak oso gogoko erdarazko maileguetako *n* bikoitzak mantentzea. Mitxelenak zioen bezala, “en préstamos lat. *-nn-* se ha conservado como *-n-*”.

Latinetik etorritakoez mintzo zen oreretarra, baina zinez pentsa genezake, filologiatan bekatu larriegirik egiteko asmorik gabe ere, latinezko testuen barnean txertatutako hau bezalako ale bitxietaraino ere heda litekeela konstatazioa, baldin inoiz mailegu bilaka baledi¹⁴.

Ezin espero zitekeen *-nn-* modukorik, beraz, Axularrek euskaratutako mailegu batean.

Hori dela eta, esku artean darabilgun hebreerazko hitza urdazubiarrak inoiz euskarazko testura eramatea bururatu izan balitzea, uste izatekoa da *GEHENNA* gisara mailegatuko zukeela jatorrizko *Gehenna* formaren orde¹⁵.

Alabaina, erabili al zuen inon —testuan, esan nahi baita— urdazubiarrak hitz hura “egokiro” mailegaturik? Hiztegieta ez da azaltzen; eta inork ez bide du horrelakorik aurkitu.

Baina ageriko ez izan arren, badarabil, bai, Axularrek hitz hori liburuan.

Non, ordea?

Infernuaren eta infernuko gorabeherak tratatzen dituzten kapituluetan behar lukeela ematen du, huraxe baita tokirik aproposena.

Eta horrela da, bai, baina zehaztu behar da zein toki zehatzetan, lehen irakurketan —lehen begirada arruntean— ez da-eta horrelakorik ikusten.

Argi dezagun, labur, kontraesanezkoa dirudien hau.

Alegia, bada infernurako bidez diharduten hiru kapitulu osatutako sortatxo bat (48, 49 eta 50. kapituluak), baina, izatez, lehena da, besteren nagusi izanik, hirurak, multzo gisara, artikulatzen dituena. Eta, hortaz, hari baino ez diogu erreparatuko.

Bestalde, benetan infernuari —*miseriazko haran* beldurgarriari— buruz eta hango pena eta oinazeei buruz trinko mintzo diren atalak liburu-amaierako azken bost kapituluak dira, hau da, 56, 57, 58, 59 eta 60 ondozkapen-zenbakiak daramatzatenak. Bost kapitulu, alegia. Bost baino ez, antza denez, baina aipatu berri dugun aurreko sortatxoko lehenarekin sei kapituluko multzo trinkoa (berriz ere, 6 zenbakia!) osatuko luketenak.

Gauzak gehiegi kiribiltzen ari garela pentsatzen hasi aurretik, irakurle, har itzazu azken bost kapitulu horietako hasiera-hasieran dauden bost letra ka-

¹⁴ Euskal idazleen artean Leizarraga da, guk dakigula, hizpide dugun hitza euskarazko testu batean tartekatutako duen bakarra (hamasei aldiz, gainera). Halere, ez zen beskoiztarra maileguetan egokitzapenik egin ohi zuen egilea, arrazoi desberdinak medio, jatorrizko formak gordetzen baitzuten oro har.

¹⁵ Eta bide batez, sei (6) hizkiko bilakaturik utziko zuen Axularrek hitz nagusi hura euskaraz emanaz gero. Sinbolikoagoa baitzen, ezbairik gabe, eta liburuaren espirituarekin lotuago.

pitalak, eta atzekoz aurrera irakur itzazu guztiak. Hau da, 613. orrialdean da goena lehenik, 608.ekoa gero, 596.ekoa hirugarrenik, 579.ekoa ondoren eta 569.ekoa azkenik.

Zerbait berezi ikusten? Bai, ezta? Letra larri loreztatu hauek, ziurrenik: G-E-H-E-N.

Jakina: berehala erantsi dezakezu guk erreferentziatzat hartu dugun azken letra —A delakoa— falta dela mehatxuzko hitz nagusia osatzeko, aurreneko bostak besterik ez baitzaizu agertzen letra kapital haiek amaieratik atzerantz irakurtzean. Eta, noski, bost baino ez dira kapitulu horiek.

Esan beharrik ez da aukera ezin hobea duzula infernuko bidez diharduten beste hiru kapituluez osatutako multzo horren buru den 48. kapitulura jotzeko eta hartan agertzen den letra kapitala eransteko eta hitz madarikatu-ekutua behar bezala biribiltzeko.

10. Harago eraman genitzake ezagutza esoterikoaren lehen zantzu hauek, baldin benetako gnostikoak bagina. Alabaina, une hauetan ez bide dugu horretarako barne-dei nabarmenagirik.

Guztiarekin ere, irakurle, tentagarriegiak ditugu gure idazle ospetsuenaren izana eta izena lerro hauek numerologi saio batez ez bukatzeko. Ez genduke ezer bitxirik burutuko, noski, ez behintzat haren garaikide izan zen Petrus Bungus italiarrak protestanteen buruarekin egin zuena bainoagorik.

Bungusek —Pietro Bongo, lagunentzat— 1584-85ean Bergamon argitaratutako *De mystica numerorum significatione* liburu miresgarrian arretaz aztertu nahi izan zuen, besteren artean, nor izan zitekeen Apokalipsian irudikatutako Antikristoa. Eta nor, eta —harriduraren handia!— madarikatu hura Martin Lutero bera zela aurkitu eta egiaztatu zuen latindar alfabeto numeralaren bitartez¹⁶, Piztiaren ikur numerikoa (“666” delakoa) osatzen baitzuen haren deituraren hizkiei zegozkien zenbakien batuketak:

L	V	T	H	E	R	N	V	C
30	200	100	8	5	80	40	200	3
666								

Handik sei urtera argitaratu zuen *Numerorum mysteria* liburuan egoikiago eman zuen “L” hizkiaren balioa eta, aldi berean, beste modu batez eman (behar izan?) zuen protestanteen buruaren izena, baina —algebra sa-

¹⁶ Honako balio numeralak dute alfabetoko hizkiek bai Bongok (1591: 1618, 625) eta bai Kircher-ek (1653, 488) egokitutako taulen arabera: A:1, B:2, C:3, D:4, E:5, F:6, G:7, H:8, I-J:9, K:10, L:20, M:30, N:40, O:50, P:60, Q:70, R:80, S:90, T:100, U-V:200, X:300, Y:400, Z:500.

kratuak ez baitu gezurrik esaten— berdin-berdin atera zitzaion zenbaki deabruzkoa¹⁷:

M	A	R	T	I	N	L	V	T	E	R	A
30	1	80	100	9	40	20	200	100	5	80	1
666											

Esan gabe doa, kontrapozoi gisara, Erromako elizburuaren tiaran agertzen den “VICARIVS FILII DEI” delakoan aurkitu zutela berehala luterarrek Antikristoaren ikurra idazpuruko zenbaki erromatarrak batuz: V+I+C+I+V+I+L+I+I+D+I.

Historia landu duen orok dakien bezala, argitzeke dago oraindik zeinek asmatu zuen egiazki, edota, bakar batena izan beharrean, partekatua ote zuten bi-biek *Gaizkiaren* aginte-makila.

Nolanahi ere den, eta gurera itzulita, zientzialari serioagoa zen Athanasius Kircher josulagunak¹⁸ ere landutako alfabeto numeralaren arabera (1653), honelako zenbakiak aterako litzaizkieke urdazubiarraren izen-deiturei, baldin, gaztelaniazko formula bazterturik (“P. De Axular”), *Gero* liburua aztertzaile izandako D’Urtubia-ren ildoko idazkera erabili izan balu berean.

Ez dugu honekin inolako mesfidantza-izpirik sortu nahi, baina honelatsu sinatu beharko zukeen adopziozko erresuma hegemoniko berrian ohi zuten bezala jokatu izan balu:

P	D'	A	X	V	L	A	R
60	4	1	300	200	20	1	80

Ez gatzazkizu inondik ere batuketa hori egitera aurreratuko, irakurle, beldur baikara ez ote liokeen gure letra-giroko espiritu honek, oharkabea, jitez eta izatez ez legokiokeen akatsen bat erantsiko gure idazlearen sen matematikoari; eta erlijiojokideen artean, jakina da —eta Axularrek berak erakutsia (Sa-

¹⁷ “Haec igitur apud Italos erit summa numerorum perfidi Haeresiarum [errepikatuko ez dugun kalkulu numerikoa dator hemen] qui simul iuncti faciunt 666. Fuit hic caput et patriarcha Haereticorum, qui se toti armavit contra Christi doctrinam, et beneficiorum eius” (Bongo 1591: 1618, 626).

¹⁸ Izaera larri horretaz mintzo dira, adibidez, egunotan albiste den *Voynich Eskuzkribua* deszifratzeko jaso zituen gonbitak. Gainera, 1665etik aurrera, hizkuntzetan, hieroglifikoetan eta bestelakoetan aditu ospetsu gisara, berretzat bakarrik izan zuen xv. mendeko liburu misterioz hura. Haren heriotzaren ondorioz (1680), Collegio Romano delakora igaro zen liburua, josulagunaren gutun eta eskuizkribu guztiakin batera.

laberri 2005)—, ez da egoki eta ez bidezko gaizki-ulerturik eta are gutxiago etsaigorik sortzen aritzea.

Hipotesiak hipotesi eta aieruak aieru, bada, misterioak argitzeko duzun irrika mintza dadila aurrerantzean, irakurle, hortxe bertan dituzu-eta Axular eta *Gero* zaharra zeure irakurketa-ahaleginen zain.

Eta hala bazan, sar dadila kuitxoan, eta ager dadila Dimako Aurrekoetxearenean!

Aramaio, 16.10.12

Bibliografia minimoa

Axular, 1643, *Gero*, Bordele (faksimil erako edizioa: Bilbo, 1988).

Bestelakoa

Bungo, P., 1584-1585, *De mystica numerorum significatione*, Bergamo.

—, 1591, *Numerorum mysteria*, Bergamo (hemen erabilitako edizioa: Paris, 1618).

Kircher, A., 1653, *Oedipi Aegyptiaci*, II. t., Erroma.

Mitxelena, K., 1977, *Fonética Histórica Vasca*, 2. ed. (zuzendua), Donostia.

Salaberri, P., 1999a, "xvii. mendeko idazleen prestakuntzaren inguruan. Axularren kasua (I)", *Karmel* 1999-3, 40-52.

—, 1999b, "xvii. mendeko idazleen prestakuntzaren inguruan. Axularren kasua (II)", *Karmel* 1999-4, 20-44.

—, 2005, "Axular Jekyll, Axular Hyde" in P. Etxeberria eta H. Knörr (arg.): *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia*, *Iker* 17, Bilbo, 413-430.